

	ZEURE OIÑOTAN (1)	
<p><b>Elorri liburua (ELR)</b></p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan, zeure oiñotan oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Iñoiz, ementxen ikasi neban, ezin aaztuzko goizetan, ementxen Meza Deuna laguntzen ikasi neban umetan.</p> <p>Aingeruen lan santua ikasi neban eleiza onetan, eleiz onetan busti naiala Gotzaiak apaiz-gantzutan.</p>	<p><b>Elorriko lorea (ELRL) (2)</b></p> <p>A) Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan; zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Iñoiz ementxen ikasi neban, ezin aaztuzko goizetan, ementxen meza zin <u>erasoten</u> [laguntzen] ikasi neban umetan.</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan; aingeruen <u>lan santua ikasi</u> [lan deun ori ikasi] neban eleiza onetan.</p> <p>Eleiz onetan busti naiala gotzaiak gantzu <u>deunotan</u> [santutan]</p>	<p><b>Excelstor ald. (EXC)</b></p> <p>I. ATZO</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan; zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan. Iñoiz ementxe ikasi neban Meza-laguntza-lanketan: Ementxe meza-laguntza-lana ikasi neban umetan.</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan; Aingeru-bear ori ikasi neban Eleiza onetan. Eleiz onetan busti naiala Gotzaiak gantzu deunetan.</p>
<p>Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan, umetan, Meza laguntzen ikasten neban garai biozti aretan?</p> <p>Ondo dakizun, mendi arteko basetxe baldar galduan, ogean itzi neban amagaz, oroitzen nintzan, orduan.</p> <p>Maitte neban ta negar egiten neban, zotñei eutsika, aretx arteko neure mintegi laztan a gaixo zala-ta</p>	<p>B) Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan, umetan, meza laguntzen ikasten neban, garai biozti aretan?</p> <p>Ondo dakizun mendi arteko basetxe baldar galduan ogean itxi neban amagaz oroitzen nintzan orduan.</p> <p>Maitte neban ta negar egiten neban, <u>zotñei eutsika</u> [samur ta beterik], aretx arteko neure mintegi <u>maittea goxo zala-ta</u> [maitte, apurtuagaitik].</p>	<p>.....</p> <p>Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan umetan, Meza-laguntza ikasten neban garai biozti aretan?</p> <p>Ondo dakizun mendiarteko basetxe baldar gozuban ogean itxi neban amagaz oroitzen nintzan orduan. ¡Maitte neban da negar egiten neban samur ta ixillik, Aretxarteko neure mintegi-eguzki-esrali [<i>sic</i>, estali?] agaitik!</p>

<b>Elorri liburua (ELR)</b>	<b>Elorriko lorea (ELRL)</b>	<b>Excelstior ald. (EXC)</b>
<p>Nork irakatsi eustan, Andrane zotiñak ixil itoten, zotiñak ixil itoten eta malakoak meza egiten?</p>	<p>D) Meza laguntzen ikasten asi nintzan aurtzaro aretan <u>sustrai [bedar] aldatu-barria nintzan</u> <u>Arantzazuko atxetan.</u> [Oin-peko lurra gogorra zan da (3) <u>sustrai bigunak neukazan.</u>] Orduan asi nintzan lenengoz bizitza-lorrak nabaitzen. Jainko-deiari jarraitu bear, biotzak ama eskatzen..</p>	<p>Meza laguntzen ikasten asi nintzan aurtzaro aretan Landara aldatu barri nintzan Arantzazuko atxotan. Oinpeko lurra legorra zan da sustrai bigunak neukazan.  Orduan asi nintzan lenengoz bizitza-lorrak nabaitzen: Jainko-deiari jarraitu bear, biotzak ama eskatzen.</p>
<p>Nork irakatsi eustan, Andrane zotiñak ixil itoten, zotiñak ixil itoten eta malakoak meza egiten?</p>	<p>Nork erakutsi eustan, Andrea, bizitza-lorrak goitutzen, sasi-oteak zapaltzen eta malakoak otoi biurtzen?  Birgiña orrek zaindu ninduzun, zeuk zindudazan laguntzen</p>	<p>Nok erakutsi eustan, Andrea, bizitza-lorrak garaitzen, sasi-oteak zapaldu eta malakoak otoi biurtzen? <b>BIRJIÑA ORREK ZAINDU NINDUZUN, ZEU [sic] ZINDUDAZAN LAGUNTZEN</b></p>
<p>Begiak zabal egoten nintzan guztia jaso bearrez; lillura jatan abade jauna, bedeinkalari, otoitzez.</p>	<p>E) Sustraiak bera ioazan eta burua gorantz etorren. Zure argiak, zure beroak lagundu <u>nindun</u> [eustan] garaitzen.-  Iñoiz amestu nitun amesak asi iatazan bizkortzen. Txiliñak, tilin... Sanctus kanpaia, Meza-erdia urreratzen.</p>	<p>Sustraiak bera ioiazan eta burua gora etorren. Zure argiak, zure beroak zenbat bizitza sendotzen!  Iñoiz amestu neuzan amesak asi iatazan bizkortzen. Txiliñak, tilin. “Sanctus” kanpaia. Sagaraldia urbiltzen</p>
<p>Begiak zabal egoten nintzan guztia jaso bearrez; lillura jatan abade jauna, bedeinkalari, otoitzez.</p>	<p>Begiak zabal egoten zintzan guztia ikusi bearrez. Jaupari jauna iatan gogoko bedeinkalari, [ta] otoitzez.</p>	

<b>Elorri liburua (ELR)</b>	<b>Elorriko lorea (ELRL)</b>	<b>Excelsior ald. (EXC)</b>
<p>.....</p> <p>.....</p> <p>Siñisten neban Misterioa.(4)</p> <p>.....</p>	<p>Txiliñak, tilin... Sagardialdia!...</p> <p>Jaupari jauna makurtzen, jaupari jauna makurtzen eta latin barriak mintzoten.</p> <p>Siñisten neban misterioa: ogia Jainko biurtzen.</p>	<p>Txiliñak, tilin. Sagardialdia! Jaupari Jauna makurtzen. Jaupari Jauna makurtzen eta ogia Jainko biurtzen!!!</p> <p>Ames gozotan ikusten nintzan sagaraldian makurtzen. Sagaraldian makurtzen eta ogia Jainko biurtzen.</p>
<p>Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan mutiltan, Meza-laguntza gogoko jatan garai amesti aretan?</p> <p>Asmo kutun bat begiraturik, itxaroz, neure buruan, pozaren pozez egiten neban negar leuna zan orduan.</p> <p>Apaizgorako ames jasoek ekarri nabe garbirik.</p> <p>Gaur gaztea naz..., oraindik, leengo malko ta amesez beterik.</p>	<p>F) Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan mutiltan meza-laguntza gogoko iatan garai amesti aretan?</p> <p>Neure amesak begiraturik itxaroz neure buruan pozaren pozez egiten neban negar leuna zan orduan.</p> <p>Gero ez-baiak izaten nitun.</p> <p>Ain iatan gauza ederra!</p> <p>Altareraño elduko ete zan zoratzen nindun zidorra?</p> <p>Bide latzean neure poza zan ametson itxaropena, ondamendia etorreanean oratzen neban ayena.</p> <p>Jauparitzako ames jasoak ekarri nabe garbirik.</p> <p>Gaur gaztea naz, ondiñoarren, lengo ametsez beterik</p>	<p>.....</p> <p>Gogoan dozu zelan negarrez egoten nintzan mutiltan Meza-laguntza atsegin iatan garai amesti aretan?</p> <p>Neure amesak gogoraturik, itxaroz neure barruban, Pozaren pozaz egiten neban negar leuna zan orduban.</p>

<b>Elorri liburua (ELR)</b>	<b>Elorriko lorea (ELRL)</b>	<b>Excelstior ald. (EXC)</b>
<p>Ez dakusuz zein bitxi direan malkuok ames loretan, malkuok ames loretan eta amesok zeure oiñotan?</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan, zeure oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Meza laguntzen iñoiz ikasi neban eleiza onetan, eleiz onetan busti naiala Gotzaiak gantzu deunetan.</p>	<p>G) Ames laztanok, begion urak busti daroetz intzetan. Lorak banitu, Bagilla iatan gaztaro bikain onetan. Ez dakusuz zein bitxi direan malkuok ames-lorotan, malkuok ames-lorotan eta amesok zeure oiñotan?</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan: zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Meza laguntzen iñoiz ikasi neban eleiza onetan, bertantxe orain ikasi nai dot meza emon ta kantetan.</p> <p>Zer egingo dot Jainkoa neure deiera iatordanean?</p> <p>Zela, aul onek, erabilliko dana esku artean?.</p>	<p>II. GAUR</p> <p>Arek amesak begion urak busti daroaz intzetan lorak banitu, udalaren iatan gaztaro bikain onetan. Ez dakusuz zein bitxi dodazan malkuok ames-lorotan. Malkuok ames-lorotan eta amesok zeure oiñotan?</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan; Zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Meza laguntzen iñoiz ikasi neban Eleiza onetan. Bertontxe orain ikasi nai dot meza emon da kantetan! Zer egingo dot Jainkoa neure deiera iatordanean?</p> <p>Zelan, aul onek, erabilliko A dana eskuartean? Senetik iñoiz ez dot urtengo mirari aren aurrean?</p>

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Elorriko lorea (ELRL)</i>	<i>Excelsior ald. (EXC)</i>
	<p>Zelan gertatu ziña zu Jainko-amatu ziñanerako? Zaitetz nigaz gaur apaizgo-maixu apaiztzen nazanerako.</p> <p>Meza deunaren aundiak busti naiala sakon lotsatan. Altarera bein igo naitela bildur zuzena gogotan.</p> <p>Zure sabelak nabaitu eban ikara nai dot ariman, berba batera zeruetako Jainkoa iatordanean</p>	<p>.....</p> <p>Zelan gertatu ziñan zu Jainko-Amatu ziñanerako? Zaitetz nigaz gaur apaizgo-maixu apaiztzen nazanerako.</p> <p>Meza deunaren aundiak busti naiala sakon lotsatan. Altaretara igo naitela zuzen-bildurra gogotan.</p> <p>Zeure sabelak nabaitu eban ikara nai dot ariman. Berba batera, zeruetako jainko datordanean</p>
		<p>A, irakatsi altara deuna biotz sugartsuz gurtutzen. Zaindu nagizu apaiz-bizitzan iñoiz zabartu ez naiten.</p> <p>Lagundu, Ama, Aita Jainkoa Kristo Berak lez maitatzen. Aren aurrean gorputz-arimok betiki poztu daitezen</p> <p>.....</p> <p>Lortu eidazu argi meia dan Jaungoikoaren Arnasa; Iñoiz zeurea bete eban lez ase deiztala biotza. Ordaiñez Zeure ederrerako jasoko dot nik kaliza.</p>

<b>Elorri liburua (ELR)</b>	<b>Elorriko Iorea (ELRL)</b>	<b>Excelstior ald. (EXC)</b>
<p>Begitu zelan ikasi dotan kaliz ederra jasoten. Apaizgoari nago, saio au, mirari biurtu daiten.</p> <p>Zeure oiñotan gura dot baiña, zeure oiñotan, oiñotan, zeure oiñotan oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Abadetzaren iturri garbi zarean orren oiñotan, ementxen busti naiala, naro, Gotzaiak apaiz-gantzutan</p>	<p>H) Ikusten dozu zelan ikasi dodan kaliza jasoten? Gantzu deunari nago, antz utz au, egizko biurtu daiten.</p> <p>Urrean iabilt baiña Ats Gurena ego gardenak dardaraz. Zar miraria egin daikedan Jainko-maitasun orregaz!</p> <p>Zeure oiñotan gura dot baiña, zeure oiñotan, oiñotan; zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Gauparitzaren iturri leiar zarean orren argitan. Ementxe busti naiala naro gotzaiak Gantzu deunetan.</p> <p>Kristoren antzo zeugan nai neuke sagaratua izan nik. Sabel orretan baletorkida Arnas Gurena zerutik</p>	<p>III. BIAR</p> <p>Ikusten dozu zelan ikasi dodan kaliza jasoten? Gantzu deunari nago antz uts au egizko biurtu daiten.</p> <p>Urrean iabilt baiña Ats deuna ego gardenak dardaraz. Zer miraria egin daikedan Jainko-Maitasun orregaz!</p> <p>Zeure oiñotan gura dot baiña, zeure oiñotan oiñotan; Zeure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.</p> <p>Jauparitzaren iturri leiar zarean Eleiz onetan. Ementxe busti naiala naro Gotzaiak gantzu deunetan.</p> <p>Kristoren antzo Zeugan nai neuke sagaratua izan nik. ¡Sabel orretan baletorkida Arnas Gurena zerutik!</p>

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Elorriko Iorea (ELRL)</i>	<i>Excelstior ald. (EXC)</i>
		<p>Zeure aragi orbangabeaz soñ erruge bat egiñik  Bizi nai nuke jauparigoa, Kristok bizi eban letxik.</p> <p>Nok leukon zure odol apur bat bere saiñetan sarturik,  garbitasuna opa degunon odol au garbi daikenik!</p> <p>Zein maite dodan zure soñ ori, Birjiña Sortzez Garbia,  !Zeurea ba□da Kristoren gorpu, apaiz gorpu ta Ostia!</p> <p>Ama, gorputz au garbi daiztazun, maite dot zure ondoa.  Zein dodan maite elorripe au eta oiñ orren gozoa!</p> <p>Zeure oiñotan gura dot, Ama, zeure oiñotan, oiñotan;  Zure oiñotan, oiñotan eta elorri onen geizpetan.  Iñoiz ementxe ikasi neban Meza-laguntza-lanketan,  Ementxe eta ikasi deutsut Meza emon da kantetan.</p> <p>¡BIAR BERTONTXE BUSTI NAIALA GOTZAIK GANTZU  DEUNETAN.</p>

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Elorriko lorea (ELRL)</i>	<i>Excelstior ald. (EXC)</i>
	<p>I) Mezako naz!  <u>Eguno</u> [gaurko nire] poz au ezin nei esan gizonen berba otzakaz.</p> <p>Jaunak maitero artu nau  Bere ordeko naitean,  amaika bider eskatu neutsan  elorrriko geizpean.  Zenbat goratu nauan  gizonen artean,  neure menpekoa dot  egin ninduan Jauna  altarean.</p> <p>Esker kantu bat nai deusut  abestu neure Jaun orri.  Zeuk jaso nozu ezer gitxitik,  Zeuk egin nozu ni andi.  Gauzen abots leunagaz  neure au batuki.  “Zau zara nire ona”  deituko deusut, Jauna,  beti-beti.</p> <p>Birgiña Amaren oiñetan,  elorrriko geizpetan,  ogi santua jaso dot gora  neure atzamar puntetan.  Artuizu, esan deusat,  Birjin, Seme ori.  Artu ta emoidazu  geure bion mirari  aundi ori.</p>	



Olerki hau hiru bertzio aski ezberdinetan daukagu, nahiz eta zalantzarik gabe hiruretan olerki bera izan. ELR liburukoa jaso dugu nagusienik; baina interesgarria da besteekin alderatzea. Laburrena ELR liburuan argitaratutakoa da. Gainera horren erdialdean badaude hiru lerro puntuz eginak, eta tartean honako hitz “misteriotsu” hauek galduta bezala: “Sinesten neban Misterioa” ... Nola interpretatu behar dira?

ELRK-ko bertzioa zazpi ataletan dago banatua, eta letraz adierazita atal bakoitza (A, B, D...); EXC-koa aldaera, berriz, hiru atal adierazgarritan dago partitua: ATZO, GAUR, BIAR.

- (1) Poemaren titulua *Excelsior* aldizkarian ipinitakoa da. Arantzazuko teologiako ikasleen barne-aldizkaria zen hori.
- (2) Makinaz idatzitako aldaera honetan eskuzko hainbat aldaketa dago. Horiek azpimarratu egin ditugu, eta hasierako formak kortxeteen artean ipini.
- (3) Bi lerro hauek eskuzko arrastoz ezabatuta edo utzi zituen.
- (4) Nola interpretatu behar dira puntuzko lerro horiek eta tarteko esaldi misteriotsu hori?